

Kultura

Herri Maite akordeoi taldeak emanaldia antolatu du biharko, Durangon, 25. urteurrena ospatzeko **> 13**



Estanpazio sektorea bultzatzeko proiektua

Langabezia dauden hamabi ingeniari- estanpazioaren inguruko ikastaroa jasoko dute, Durangaldeko Lehiakortasun Poloak antolatuta **> 3**

Abadiñoko Udalak igerilekuko aldageletan gertatutako eraso sexista gaitzetsi du **> 2**

Emakume batek salatu du Abadiñoko kiroldegiko emakumeen aldageletan grabaketak egin zizkiotela joan zen zapatuan, eta gertaera aztertzen ari da Ertzaintza. Aho batez onartu zuten, martitzeneko ohiko udalbatzarrean, eraso sexista gaitzesteko adierazpena. Kirol instalazioak berraztertuko dituztela iragarri du udalak, eta salaketa ipini duen emakumeari babes osoa adierazi diote. Ildo horretatik Durangoko Bilgune Feministak eta Txoko Feministak gogor salatu dute eraso.



JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA

STIHL

SAME

pasquoli

VIKING

CARON

BCS

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio -T/F: 94 623 18 03 - juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com

Elorrio **> 4**

Ezustean, PPK ez ditu jeltzaleen aurrekontuak babestu

Iurreta **> 7**

Construcciones Metálicas "abisu barik" itxi dutela dio CC00k

Berriz **> 2**

Autobus-geltoki berriko lanak esleituko ditu udalak

Durango **> 6**

Gazteen inguruko diagnostikoa osatu gura du Ernaik

Herririk herri

> ABADIÑO

Igerilekuko aldageletan gertaturiko eraso sexista gaitzetsi dute

Independenteek, Bilduk eta EAJk adierazpen instituzionala onartu dute, eraso sexista gaitzesteko

> ITSASO ESTEBAN

Urgentziaz sartu zuten gai-ordenean, martitzeneko ohiko udalbatzarrean, udal igerilekuetako aldageletan gertaturiko eraso sexista gaitzesteko adierazpena. Aho batez onartu zuten testua zinegotzi guztiek.

Abadiñoko kiroldegiko emakumeen aldageletan grabaketak egin dizkiotela salatu du emakume batek, asteen, eta gertakaria aztertzen ari da Ertzaintza.

Yanire Moreno Berdintasun Arloko zinegotziak irakurritako idatziaren arabera, “honelako gertakariak argi erakusten dute zelako indarkeria jasaten duten emakumeek emakumeak izate hutsagatik. Giza eskubideen urraketa gordin eta onartezinak dira pertsonaren duintasuna, osotasuna, intimitatea, ohorea eta irudia kolpatzen dutenak”. Kirol instalazioak berraztertuko dituztela iragarri du udalak,



Martitzeneko udalbatzarrean, urgentziaz gai ordenean sartu zuten igerilekuko erasoaren kontrako idatzia.

eta salaketa ipini duen emakumeari babes osoa adierazi diote: “Bere eskubideak defenda ditzan, ahal dugun laguntza guztia emango diegu justizia eta polizia erakundeei ere”. “Herrian

sexismoa desagertarazi arte berdintasun politikak bultzatzen jarraituko dugu”, iragarri du Abadiñoko Udalak.

Durangoko Txoko Feministak eta Bilgune Feministak ere

gogor salatu dute erasoak. “Horrelako erasoak emakumeok egunerokotasunean pairatzen dugun errealitatearen isla dira. Horien larritasuna salatzea guztion ardura da”.

2017ra arteko Euskararen erabilera Plana onartu dute

> I.E.

Udaleko hiru alderdiek aho batez onartu zuten martitzeneko udalbatzarrean 2013-2017 urteetarako Euskararen erabilera Plana. Jose Luis Navarro alkateak azaldu zuenez, udaletxean euskararen erabilera bultzatzeko neurriak zehazten ditu planak, eta baliabideak eskaintzen ditu. Administrazioari loturiko hainbat alorretan eragin gura dute programa horrekin.

Udal langileek, gutxinaka, euskaraz idatzi eta berba egiteko gaitasunak garatzea da helburua

Argi Abad euskara zinegotziak esan zuenez, besteak beste, langileen hizkuntza gaitasunean eta trebakuntzan indarra egitea da planaren helburuetako bat, “udaleko langileek, gutxinaka, euskaraz idatzi eta hitz egiteko gaitasun handiagoa izan dezaten”. Euskararen erabilera sustatzeko 2010ean onartutako Plan Nagusiaren barruko proiektua da hau.

Erakundeek eredia eman behar dutela azpimarratu, eta “planaren ezarpena lehenetsunezkoa izan dadila” aldarrikatu zuen Bilduk. EAJko bozeroleak, “bihartik aurrera hasi daitezela plana martxan ipintzen, eta langileen eskura tresnak jartzen”, eskatu zuen.

> BERRIZ

Urtebete egongo da lokalak legeztatzeko

> AMAIA UGALDE

Lau batzar egin ostean, aisialdi lokalen ordenantza adostu dute, lokalen erabiltzaileak, lokalen jabeak eta auzokideak batuta. Segurtasun eta higiene neurriak, eta aktibitate ordutegiak zehaztu dituzte, besteak beste.

Berrizen aisialdirako hamalau bat lokal daude. Araudira egokitu egin beharko dute urtebeteko epean. Besteak beste, komuna eta su-itzalgailuak eduki beharko dituzte, baita elbarrientzako pasabideak ere. Lizentzia eskuratzeko tasa %25 merkatzea erabaki dute udal arduradunek.

Lokalak erabiltzeko ez dute itxiera ordutegirik zehaztu; horren ordez, aktibitate ordutegia eta isiltasun ordutegia zehaztu dituzte. Aktibitate ordutegia, astelehenetik egunera, 08:00etatik 22:00etara izango da; barikua, zapata eta jaiegun bezperetan, 23:00ak artekoa, eta herriko jaietan, gauerdia arte luzatuko da.

Hitzarmena

Amankomunazgoan egon ez arren, geroago eta zerbitzu gehiago hartzen ditu Berrizko Udalak. Orain, Lanbide Ikastetxeagaz hitzarmena eskatuko dute. Gai honen inguruan debatea sortu zen osoko bilkuran. Alkatearen berbetan, apurka zerbitzuak gehitu eta Amankomunazgoan sartzen joatea da egokiena. Horretarako, Bilduk uste du Amankomunazgoan hausnarketa bat egin behar dela: “Gaur dagoen moduan, ez gaude bertan sartzearen alde”.

> ATXONDO

Autobus geltoki berriko lanak esleitu dituzte

Aldundiak proiektua gauzatzeko baimena eman die; Elorriorako noranzkoan egingo dute geltoki berria

> JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Foru Aldundiak baiezkua eman dio N-636 errepidean, Abadiñotik Elorriorako norabidean, autobus-geltoki berria egiteko proiektuari. Hori jakinarazi zuen gobernu taldeak astelehenean egindako ohiko udalbatzarrean. Ondorioz, kontratazio espedientea martxan dago, eta prozedura negoziatu bidez egingo dute. Hiru enpresari egin diete euren proposamenak bidaltzeko gonbita.

Aste honetan amaitu da proiektuak aurkezteko epea, eta

udalaren asmoa da ahalik ariren batzartzea lanak nori eman erabakitzeko.

Autobus geltoki berria errepidearen ondoan egongo da, eta ez gaztetxe parean, orain dagoen moduan. Zehazki, sasoi batean hotela zegoen eraikinaren eta semaforoaren artean egingo dute autobus geltokia. Proiektua aurrera eroateak 57.800 euroko kostua izango du, eta gastua aurrerago aurrekontuetan sartzen saiatuko dira. Baina ezin bada, datorren urtekoetan diru-atal bat irekiko lukete.

Kooperatiba bizilekuetarako izen-ematea hasiko dute

Kooperatiba bidezko etxebizitza proiektuarako izen-emate epea urtarrilaren 7an hasiko da

> J.D.

Udalak zortzi etxebizitza egiteko aukera jasotzen duen orube bat dauka Jose Antonio Agirre kalean. Horiek egiteko herritarren parte hartze zuzena eskatzen duen kooperatiba eredia bultzatu dute. Hainbat batzar ireki egin izan dituzte, eredu horren gainean herritarrak informatzeko. Orain, hurrengo urratsa emango dute. Asteleheneko udalbatzarrean jakinarazi zuten, 2014ko urtarrilaren

7tik 31ra irekiko dute interesatuek izena emateko epea. Hautagaiek baldintza batzuk bete beharko dituzte: beste etxebizitza baten jabe ez izatea eta gehienezko diru sarrerengatik behera egotea, esaterako. Hasiera batean, atxondarrek zein handik kanpokoek eman dezakete izena.

Orubea udalarena izango da, baina kooperatibari utziko dio lur zatia, eta kooperatibaren ardura da finantziaketa bilatzea.

> ZALDIBAR

Bermeon suteak kalteturikoei diru-laguntza

> I.E.

Egoera ekonomikoa okerrera zihoala, eta 2013an gizarte-zerbitzuko urgentziazko laguntza eskariak jasoko zituztela aurreikusita, 12.000 euroko diru atala gorde zuten udal aurrekontuan. Baina, Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, “Durangoko Amankomunazgoan gizarte larrialdietarako diru-atala hantitu dugunez, ez dugu diru-atal horren erabilpenik egin”. Udal aurrekontuan gordetako 12.000 euro horiek zer zereginetara bideratu erabaki zuten udalbatzarrean: 6.000 euro Bermeoko sutean kalteturikoei bideratzea proposatu zuen Bilduk. Erabaki horren alde bozkatu zuten Bilduko sei ordezkariak, eta abstenitu egin ziren EAJ, PSE-EE eta PP.

Materiala erosteko

Bat-batean sorturiko osasun arazoaren aurrean herritarrak laguntzeko materiala erostera bideratu dute beste diru atal bat: gurpil-aulki bat, garabi bat, ohe artikulatu bat, eta makuluak erosi dituzte. Beharrezana duten herritarrek aldi baterako eskatu ahaliko dituzte.

Datorren urteari begira, ordenantza onartu zuten udalbatzarrean, diru partida horretako 12.000 euroen erabilera arautzeko. Diru hori langabetuen ikastaroetarako garraio gastuetan, eskolako jantzien erosketetan, eta eskolaz kanpoko ekintzetan laguntzera bideratuko dute.

> DURANGALDEA

Goi mailako estanpazio ikastaroa egingo dute, lana sortu eta sektoreari indarra emateko helburuz

Hamabi lagunek jasoko dute Lehiakortasun Poloak sustatutako ikastaroa; estanpazioa da eskualdeko sektore industrial indartsuena



Muro eta Izaga, Azterlanek Alienaldeko industriagunean daukan egoitza.

> MARKEL ONAINDIA

Langabezian dauden hamabi ingeniari estanpazioaren inguruko goi mailako ikastaroa jasoko dute datorren barikutik aurrera. Durangaldeko Lehiakortasun Poloak antolatu du, eta IK4-Azterlan ikerketa zentroak eskainiko du. Azterlanez gainera, Durangaldeko Enpresen Elkartea eta Behargintza ere badaude Poloan. Helburu nagusi bi dauzkate ikastaroagaz: kalitatezko lana sortzea eta estanpazio sektorea bultzatzea. Izan ere, diseinu eta muntaketarenagaz batera, estanpazioa da eskualdeko industrian indarrik handiena daukan sektorea. 1.400 behargin inguru dabilta bertan, eta fakturazioan ere estanpazioak sortzen ditu datu altuenak. Eragin horretaz jabe, etorkizuneko erronkei erantzuten lagundu gura diete sektoreko enpresei. Lanbideren diru-laguntza bati eskerrak garatuko da ikastaroa.

Azterlaneko Teknologia eta Berrikuntza zuzendari Julian Izagak (Durango, 1951) esan du lanerako aukera eskaini gura

dietela gazteei. Langabezian dauden 50 ingeniariatik gora apuntatu dira, eta egoera hori “drama” bat dela uste du. Era berean, azaldu du aukeratu dituzten hamabiak urtebetara ingeniari gisa eskualdeko enpresetan beharrean egotea dela egitasmoaren azken nahia.

Nazioarteko adituak ere bai Maider Muro (Durango, 1983) da ikastaroaren koordinatzailea.

Azterlanez gainera, Durangaldeko Enpresen Elkartea eta Behargintza ere badaude Poloan

Adierazi du abenduaren 27an aurkezpene egingo dutela, eta ikastaroa bera urtarrilaren 13an hasiko dela. Urriaren amaierara arte garatuko da. 1.000 ordukoa izango da ikastaroa: 400 ordu teoria landu eta enpresak ezagutzeko, 200 Azterlanen ariketak egiteko, eta gainerako 400ak

enpresetan proiektuak aurrera eramateko. Praktika horiek tutoreen laguntzagaz egingo dituzte. Izagaren ustez, ikastaro honek ikuspegi erreala bat jasoko dute. Azterlaneko kideek eta nazioarteko adituek emango dituzte eskolak. Ikasleak pozik irtetea espero du Murok: “Ikasi

dezatela gustura, sektoreari hurreratu, eta ea lana aurkitzen duten”.

Enpresen beharrianak

Ikastaroaren oinarrian enpresen beharrianak daude. Izan ere, hamabi enpresagaz kontrastatu zuten lehenik. Teknologia

berrienetan jantzitako ingeniariak behar dituzte, “inplikaturako direnak eta lanean disfrutatuko dutenak”, azaldu du Izagak. Gainera, enpresa horietan lanean dauden bost lagunek ere parte hartuko dute ikastaroan. Beraz, sektoreari begirako estrategia ere badago atzean.

Durangaldea, ekonomi arloan erreferentzia

Julian Izagaren ustez, industria da gakoa

Azterlan 60ko hamarkadan jaio zen Durangoko Maristen eskutik. Hainbat urtez ikastetxean egon ostean, 2006an Alienaldeko industriagunean hartu zuten egoitza. Izagak esan du erakundearen laguntza barik ezingo zutela aurrera egin. Irabazi asmorik barik, teknologian eta berrikuntzan eragitea da euren helburua. Metalaren transformazio teknologiak aztertzen dituzte, eta

ingurumena eta formazioa ere jorratzen dituzte.

Durangaldea ekonomikoki erreferentzia dela dio Izagak, eta Eustateko datuak erabili ditu arrazoiatzeko: “Bizkaiko barne produktu gordinaren %22 Durangaldean sortzen da, lurraldearen %10era heltzen ez den populazio batez. Eta hori zergatik? Industria delako gakoa”. Horregatik, bere ustez, industria sortu eta

indartu behar da. Metalgintza arloan 5.000 behargin baino gehiago dabilta lanean Durangaldean, eurek emandako datuen arabera.

Izagak dio ildo asko dauzkatela zabalik Lehiakortasun Poloan. Eskualdeko industria mapa eguneratu dute, eta lantalde berezi bi sortu dituzte 21 enpresen partaidetzagaz. Esaterako, joera berria den estanpazio beroaren inguruan. Eskualdeko egoera ekonomikoaz hausnartzeko foro bat ere egin dute enpresari eta politikariek.

Bestalde, Azterlanek Fundizioaren Munduko Kongresua antolatuko du 2014an.

Garage SAN MIGUEL
www.garajesanmiguel.es
Sartu eta ezagutu webgune berria!
 Bertan asteko eskaintzak, gomendioak... aurkituko dituzu!
GARAGE SAN MIGUEL DE IURRETA S.L.
 Dantzari auzunea, 8 behea · 48215 IURRETA
 Tel.: 946 811 479 - Faxa: 944 668 282
garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es

hezgarri
OLENTZERORI GUTUNA
 Idatz iezaiozu gutun bat Olentzerori eta sartu eskolarako material sorta baten zozketan.

> ELORRIO

Ezustean, PPko Carlos Garciak ez du babestu aurrekontua

Presoen senideei ustez emango litzaiekeen laguntza dela-eta, gobernu taldearen aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuen Garciak

> MARKEL ONAINDIA

Eguaztenean 2014rako udal aurrekontua onartzeko eztabaida egin zuten udalbatzarrean. EAJ-

ko gobernu taldeak eta Bilduk proposamen bana aurkeztu zuten, aurretiaz partaidetza prozesu bana garatu, eta geroko

emaitza gisa. Bazirudien EAJ-rena onartuko zela, PPko Carlos Garciaren aldeko bozkagaz edo abstentzioagaz berdinketa



Elorriko zinegotziak, eguazteneko udalbatzarrean.

apurtuta, baina ez zen hala izan. Garciak Ana Otadui alkateari galdetu zion ea presoen senideei diru-laguntzarik emango zaien, dispartzioa dela-eta. Otadui esan zuen aurrekontuan ez dagoela aurreikusita. Idoia Buruagak (Bildu), oster, esan zuen Otadui senideei berba eman ziela laguntzarako. Aurrekontuan egon ez arren, udalek aldatu egiteko aukera daukate urtean barrena. Aldaketa ez egiteko konpromiso argia jaso ez zuela-eta, Garciak aurrekontua ez onartzea erabaki zuen.

“Kontrako botoa ez genuen espero”, esan du Joseba Mujika alkateordeak. Orain zer egin aztertzen dabilta, aurrekontua berriro batzarrera eroan edo 2013koa luzatu. 2014rako aurrekusi dituzten proiektu estrategikoak garatzeko asmoa berretsi du Mujikak, eta Elizaldeko igerilekuena ez dago arriskuan. Uztalean onartu zen ekimena, eta hori zelan finantzatu ere bai.

Gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera,

udalak 2,7 milioi euro erabiliko lituzke inbertsio errealek egiteko, eta, horretarako, zorretan sartu beharko litzateke, mailegu bat eskatuta. Igerilekuak, Aldapebeitia eraikinaren egitura trinkotzeko lanak, eta Ibarra kaleko zubia eta errepidearen urbanizazioa dira inbertsio horiek. Hala ere, Ana Otadui alkateak (EAJ) azaldu zuen plan horretarako “zuhurtzia” erabili dutela, Aldundiak ezarritako zor publikoaren muga ez luketelako gaitutuko. Iaz baino %29 handiagoa litzateke aurrekontua. Ekonomia eta enplegua sustatzea eta gizarte-laguntzei eustea dituzte lehentasun nagusi.

Idoia Buruagak (Bildu) gobernu taldea kritikatu zuen, aurrekontuan diru gehiago izanda, gizarte-ekintzako gastua berdin mantentzeagatik. Gainera, Buruagaren ustez, kanpoko igerilekuak egiteko mailegua eskatzea ez da erantzukizunez jokatzeko: “Herria hipotekatuta utzi dezakeen aurrekontua da EAJrena”.

Herriko argazkilarien 32 lan, ura gaitzat hartuta

> M.O.

Elorriko Argazki Taldeak urteroko erakusketa antolatu du, eta abenduaren 27ra arte egongo da ikusgai Iturri kultur etxean. Aurtengo gaia *Ura* da. Guztira 32 argazki daude erakusketan, guztiak herriko argazkilariak eginak.

Antolatzaileek esan dute gaitzabaz bat aukeratzeko dutela denboraz, horrela, argazkilariak lanak egiteko aukera errazagoa

izan dezaten: “Bakoitzaren sormena garatzeko aukera ematen saiatzen gara, eta orokorrean erakusketa sortzaile bat osatzen ere bai”. Aurrerakuntza esan dute helburu hori bete egin dutela aurretik. “Autoreen maila altua nabarmendu behar da, eta publikoaren partetik kritika ona egon da”, adierazi dute.

Bihar, 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. 23an, 26an eta 27an, 09:00etatik 14:00etara.

Truke azoka egingo dute 110 postugaz, etzi

> J.D.

Domekan, askotariko produktuen truke azoka egingo dute Elorriko plazan, 10:00etatik 15:00etara. Aurten seigarren aldiz izango du. Guztira 110

postu ipiniko dituzte: arropa, eta artisautza eta antigoaleko objektuak egongo dira, esaterako. Postu batzuetan trukea bakarrik egin ahalko da, eta beste batzuetan ohiko salmenta egingo dute, diruagaz. Posturik gehienak Durangaldekoak izango direla adierazi dute antolatzaileek, baina tartean, esaterako, Eibar eta Ipar Euskal Herrikoak ere egongo dira.

> MALLABIA

‘Olentzero Mallabira dator’ abenduaren 24an

> JONE GUENETXEA

Mallabiko hainbat elkarte Gaborretarako egitaraua prestatu dute udalagaz batera. Abenduaren 24an, BBT martxa abiatuko da goizeko 10:30ean (20 km). Basetik, arratsaldeko 19:00etan izango da ‘Olentzero Mallabira dator’ ekitaldia. Abenduaren 26an, ipuin kontalaria arituko da Herriko tabernan, 18:30ean. Haur parkea, berriz, abenduaren 27an ipiniko dute, egun osoan, Mallabia I kirol etxean. Eta 19:30ean *Parot doktrinari* buruzko hitzaldia eskainiko dute Herriko tabernan. Mendibil abesbatza baserrikerri baserri joango da gabon-kantak abestera, abenduaren 28an. Egun horretan, arratsaldeko 19:30ean, umorezko bakarriketa eskainiko dute Herriko tabernan. Urtarrilean, oster, hilaren 6an, zinema emanaldia izango da kultur etxean, 17:00etan.

> IZURTZA

Interesguneen kokaleku zehatza jakiteko aukera

Baserri, enpresa eta askotariko guneen kokaleku zehatza eskuragarri izango da udaleko webgunean

> JOSEBA DERTEANO

Izurtzako Udalak finantziatu eta Inforlur enpresak garatutako sistema baten bidez, udaleko webgune berriak interesekoak diren herriko eraikin, baserri zein gune guztien gaineko kokaleku zehatza kontsultatzeko aukera eskainiko du. Udaleko webgunean laster ipiniko dute lotura batek www.inforrentziak.com helbidera bideratuko du bisitaria eta han jaso daiteke informazioa.

Webgune horrek hainbat herriko informazioa ahalbidetzen du, tartean Izurtzako. Izurtzaren atalean herriko baserri, eraikin historiko, enpresa eta, oro har, jendearen interesekoak izan daitezkeen guneen gaineko kokaleku zehatzak jaso daitezke. Mapa batean agertuko dira uda-

letxe, hilerri, eliza eta ermiten kokalekuak, adibidez. Horrela, Izurtzako tokiren bat urgentziaz bilatu behar dutenek, dela ambulantiak, dela polizia, edo dela su-hiltzaileak, klik batean jaso ahalko dute edozein baserri edo guneren kokalekua. Baina, oro har, norbanako guztien eskura egongo den zerbitzua izango da.

Zerbitzuaren abantailak bat da dispositibo mugikor guztiei egokituko zaiela; mugikorreirei eta tabletei, adibidez. Gainera, erabiltzaileak dagoen tokian dagoela, mapa horrek heldu gura den tokirako ibilbiderik laburrena eta azkarrena jasotzeko aukera ere eskaintzen du. Egitasmo berriaren gaineko dudak dituzten herritarrei udaletxean argituko dizkiete zehatzak.

Solaguren kalea, 3
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI,
BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA,
TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

GAER **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

GAURSA

HITZ EMATEN DUGU ZURE AUTOAZ HARRO EGONGO ZARELA



**RENAULT CLIO
EXPRESSION**
1.5dCi 90CV
2013an matrikulatua
12.800€*



**RENAULT MÉGANE
EXPRESSION**
1.5dCi 110CV
2012an matrikulatua
10.800€*



**DACIA SANDERO
LAUREATE**
1.5 dCi 85CV
2013an matrikulatua
10.500€*



**RENAULT FLUENCE
DYNAMIQUE**
1.5dCi 110CV
2012an matrikulatua
12.800€*



**RENAULT GRAND
SCÉNIC DYNAMIQUE**
1.5dCi 110CV 7 PLAZAS
2012an matrikulatua
16.600€*



RENAULT OCASIÓN

EGON ZAITEZ HARRO ZURE AUTOAZ

*Eskaintza baliagarria da RCI Banque Sucursal en España-rekin gutxienez 4.000 € finantzatuta 24 hilabete baino gutxiagoko bigarren eskuko ibilgailuen deskontu-promozioaren bidez. Gutxienezko epea 24 hilabete. RECSA eta GaurSA eskaintzako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Kortsulatu baldintzak kontzesionarioan. Eskaintza baliagarria partikularrentzat 2013/12/31 arte. Irudiko modeloak: Sandero Laureate 1.2 75 ZP berria, Renault Clio Expression, Renault Fluence Dynamique, Sport Plus pack-arekin, Renault Scénic Privilege 2.0 103 kW (140 ZP) auto CVT, Pack Style + pintura metalizatua y Renault Mégane Berlina Authentique 100 ZP.

Renault gomendatu **elf**



GAURSA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA
DON DIEGO LOPEZ HAROKO KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO
www.gaursaautoak.com

> DURANGO

Gazteen beharrak ezagutu eta “zubiak eraiki” gura ditu Ernaik

Gazteen inguruko diagnostikoa osatu gura dute



Ernaiko zenbait kide, dinamika aurkezteko argazkian, Santa Ana plazan.

> MARKEL ONAINDIA

Ernai gazte erakundeak iritzi bilketa hasi du gazteen beharrak ezagutzeko. Hori da helburu nagusia, baina ez bakarra, “arazo berdinak dituzten gazteen artean zubiak eraikitzea” ere badutelako xede. Prentsa oharra bidali dute Ernaiko kideek euren dinamika berriaren azalpenak emateko. Euren esanetan, herriko gazteen inguruko diagnostikoa osatu gura dute, eta horretarako ezinbesteko ikusten dute gazteek eurek iritzia ematea. Ernai Euskal Herri mailako erakundea da, ezker abertzalearen barnekoa eta independentzia, sozialismoa eta feminismoa helburu dituen.

Inkesta banatuko dute

Diagnostikoa osatu ahal izateko, bide bi erabiliko dituztela azaldu dute: datu bilketa eta inkesta. Galdera sorta hori ahalik eta

gazte gehien artean banatuko dutela azaldu dute. Horrez gainera, zalantzak argitu eta ekarpenak egiteko bide bat ere eskaini dute: gaztiok@gmail.com helbide elektronikoa. Durango-ko gazteen iritziekin batera iurretarrenak ere batuko dituztela jakinarazi dute oharrean.

Ernaireren ustez, gazteek ara-

Galdera sorta hori ahalik eta gazte gehien artean banatuko dutela azaldu dute

zoak dauzkatela jakineko gauza da, baina sistemak indibidualizazioaren bidez ezkututzen dituela esan dute. Argitara atera gura dituzte: “Arazo kolektiboak dira, eta horregatik dauka gazteriak kolektibo izaera, behar berdinak ditugulako”.

Gabonetan alkoholagaz kontuz ibiltzeko deia

Alkoholikoen senideek adi ibiltzeko deia egin dute

> M.O.

Alkoholikoen senideak batzen dituen Al-Anon elkarteak dei berezia egin du Gabonei begira. Euren ustez, edana ugaritzen den sasoi honetan, alkoholikoek arrisku handiagoa dute berriro edanari emateko. Gaixorik dauden senideak ohitura horretan berriro erortzea saihesteko, Gabonetan adi egoteko deia egin diete euren egoeran daudenei.

Alkoholikoen senideek azaldu dute sasoi honetan urduri ibiltzen direla, kezkatuta. Telebistan edota kalean, edari alkoholikoen propaganda ugari egiten da, eta ospakizunaren aitzakian, kontsumoak ere gora egin ohi du.

Al-Anon taldea 1951n sortu zen AEBetan. Durangon aurten hasi dira batzen, eguenetan, 18:00etan, Landakoko kiroldegia-aren behealdean. Gaixoarentzako soluziorik ez daukate; euren artean babesteko elkartzen dira, eurak ere gaixorik daudela onartuta. Horrela, senideari laguntzeko indarra hartzen dute. Interesdunek 94 424 24 98 telefonora deitu ahal dute.

Alkoholikoen senideek azaldu dute sasoi honetan urduri eta kezkatuta ibiltzen direla

Kalitatearen urrezko Q saria jaso du San Jose Jesuitak ikastetxeak

“Euskadin hezkuntza eredu ona dagoela erakutsi da”

> M.O.

Euskalit fundazioak saritu egin du San Jose ikastetxea, eta pozik daude jasotako sariagaz: “Gure helburua ez da Q saria irabaz-

tea, hobetzen jarraitzea baizik”. Ikastetxeko Eva Rodriguez zuzendariak eta Isabel Kapanaga kudeaketa koordinatzaileak prentsaurrekoan eman dute sa-



Eva Rodriguez eta Isabel Kapanaga prentsaurrekoan.

riaren berri. 2008an zilarrezko Q saria jaso zuten. “Gure ibilbide pedagogikoa eta lidergoa hazten dabilta”, adierazi dute. Ordu-tik hona, hiru hizkuntzako eredu aplikatu dute, eta ordenagailuak erabiltzen hasi dira DBHko kurtso bitan. Bestalde, Durango-ko jendarteari begirako lana garatu dutela esan dute, “justizian, berdintasunean eta barne hartzean oinarrituta”, besteak beste. Ikastetxeak Durangon presentzia eduki behar duela hausnartu dute, erakunde lez lan egin behar dutela.

LOMCE legea ezartzeaz da goen honetan, “Euskadin hezkuntza eredu ona dagoela erakutsi da”, esan dute. Sarietaz gainera, PISA neurketako emaitzak ere horren erakusle direla diote.

Esnea erosteko guneak ezartzea proposatu dute ekintza planerako

Bildu eta Aralarrek ekintza planerako proposamen alternatiboa aurkeztu dute

> M.O.

Urrian ez zen onartu EAJk landutako ekintza plana, eta horren aurrean, Bildu eta Aralarreko zinegotziek euren proposamena aurkeztu dute. Agenda 21aren barruan 2020ra arte garatzeko ekintzak jaso behar ditu planak. Joan zen barikuan bidalitako prentsa oharrean ziotenez, hogeitabat ekintza txertatu dituzte euren dokumentuan, parte-hartze foroetan herritarrek asmatutakoak. Besteak beste, baserriko esnea saltzeko guneak ezartzea, ludoteka eta gaztegunerik ez zuten lekuko txandakako etxebizitza eta alokairu publikoak lehenestea.

EH Bildu koalizioan batzen diren alderdiek EAJren hasierako plana kritikatu dute: “Tokiko agendako foroetan erabakitakoa ez zen inondik inora jasotzen”. Tartean, Urki-Hegoalde saihesbiderako inbertsio bat zegoen, adibidez. “Argi eta garbi esan behar dugu diru partida horiek ez direla

EH Bildu koalizioan batzen diren alderdiek EAJren hasierako plana kritikatu dute

foro parte-hartzaileetan onartu. Beraz, EAJ herritarrei iruzur egiten saiatu da”.

EAJri deia

Gobernu taldearen proposamenari alternatiba eman gura izan diote Bildu eta Aralarreko zinegotziek: “12.889.400 euroko aurrekontuagaz, zehaztasunez jasotzen du foro parte-hartzaileetan eztabaidatutakoa eta adostutakoa”.

Oharrean, proposamen hori udalbatzarrerara eramateko deia egin zioten Bilduk eta Aralarrek EAJri, baina martitzenean ospatutako ohiko udal bilkuran, behintzat, ez zuten landu.

> OTXANDIO

Bigarren bider, truke azoka egingo dute etzi

Dirua ez erabiltzea da baldintza bakarra; objektuak zein zerbitzuak trukatu ahalko dira

> J.D.

Domekan, truke azokaren bigarren aldia egingo dute, 11:00etatik 15:00etara, udalatxe pareko plazan. Herritarrengandik irten den ekimena da, eta iazko harre-
ra onak eraman ditu aurten ere azoka antolatuz.

Azokaren baldintza bakarra dirurik ez erabiltzea da; trukea izango da eskaintzaile eta eskatzailearen arteko hartu-emana bideratzeko modua. Askotariko objektu edo materialak trukatu ahalko dira: belarritakoak, lepo-koak, liburuak, musika CDak,

etxe-tresnak eta aparatu elektronikoa, adibidez. Zerbitzuak trukatzeko aukera ere egongo da, beraz, gura duenak bere denbora ere eskaini dezake: ume zein nagusiak zaindu, erosketak egin, instalazio elektrikoak egin eta abar.

Udalak ipiniko ditu postuak atontzeko mahaiak. Izen-ematea aurretik udaletxean egitea komeni da, antolatzaileek zenbat postu egongo diren kalkulatu dezaten. Hala ere, posible da egunean bertan ere joatea. Iaz 18 postu atondu zituzten.

> DURANGALDEA ASTEON**Elikagai bilketa solidarioa antolatu du Atxondoko gazte asanbladak**

Bizkaiko Elikagai Bankura eroateko elikagai bilketa antolatu du Atxondoko gaztetxeak. Abenduaren 23an eta 26an udaletxe azpian egingo dute bilketa, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara. Abenduaren 27 goizean ere bertan egongo dira, eta arratsaldeko ordutegian, gaztetxean. *Kapitalismo hiltzailearen aurrean, antolakuntza eta elkartasuna* lema-gaz abiatu dute kanpaina.

Durangaldeko hamaika musikari batuko dira elkartasun kontzertuan

Abenduaren 27an kontzertu berezia egongo da San Agustin kulturgunean, Durangoko La Otra Mirada GKEak antolatuta. Eskualdeko hainbat musikarik parte hartuko dute bertan: Alex Garcia, Froufe, Jon Montero, Idoia Bediaga, Etxe, Edurtzeta Ania, Khuzaima dantza taldea, Agapi, Ainhoa Murgoiñobeña eta Farnia's Brothers taldea.

Urtarrilaren 8ra arte matrikulazio epea zabalik AEKn

Durangaldeko AEK-k neguko matrikulazioa hasi du, eta izena emateko aukera egongo da urtarrilaren 8ra arte. Maila guztietan matrikulatzeko aukera egongo da, baita online eta autoi-kaskuntza ikastaroetan ere. Azterketak prestatzeko ikastaroak ere eskaintzen dituzte.

AVTk elkarretaratzeak egingo ditu Durangon eta Elorrrion

Parot doktrinaren kontrako epaiaren ostean, presoak kaleratu dituzten hainbat herritan protesta ekitaldiak egingo ditu AVT elkarteak. Abenduaren 28an Durango, Elorrio, Arrasate, Eibar eta Elgoibarren egingo dute protesta, eta ETArekin biktimak omenduko dituzte. Lore eskaintzak egingo dituzte atentatuak egindako lekuetan.

> IURRETA**Construcciones Metálicas Durango “abisatu barik” itxi dutela salatu dute**

Enpresak “oso asmo txarrez” jokatu duela salatu du CCOO sindikatuak

> AITZIBER BASAURI

Construcciones Metálicas Durango enpresak ateak itxi, eta “asmo txarrez” jokatu duela salatu du CCOOk. Izan ere, abisatu gabe langileak kaleratu eta gero, Merkataritza Arloko Epaitegian hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu dute. Abenduaren 5ean ezin izan zuten lanera sartu:

“Banakako kaleratze-gutunak aurkitu zituzten langileek, arrazoi objektiboak arrazoituta. Eta handik ordu batzuetara hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zela jakin zuten”. Zazpi langile dira lan taldea osatzen dutenak.

“Oso asmo txarrez” eta “legez kanpo” jokatu dutela dio CCOOk: “Egoeraren berri eman

behar zaie ordezkari sindikal eta langileei, eta, administratzaile konkurtsala izendatu. Eta, gero, hala badagokio, hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu. Kalte-ordainak aurreztu gura izan dituzte”. CCOOk adierazi du erreklamazioak egiteko lanean hasita daudela, eta mobilizazioak iragarri dituztela.



Santa Apoloniako industriagunean dago Construcciones Metálicas Durango.

Jar zaitez abian ituna onartu dute aho batez

Gaztedi Durangaldea garatzeko hitzarmena da

> A.B.

Jar zaitez abian hitzarmena onartu du udalbatzarrek aho batez, asteon. Horren bitartez, Durangaldeko Amankomunazgoak hartuko du Gaztedi Durangaldea Plana garatu eta kudeatzeko ardura; gazteria arloan tokiko politikak garatu, eta sektoreari bultzada bat emateko egitasmo hori Amankomunazgoak, eta Abadiño, Zornotza, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Zaldibar eta Mallabiko udalen artean landu dute.

2013-2014 urteetarako ekintza plan bat osatu dute amankomunazgoko eta udaletako teknikariek –2015era luzagarria–, datorren urtean garatuko dena. Au-

toenplegua eta formazioa dira lan ildo nagusiak, eta Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduko du finantziazioan. Gaztedi Bizkaia programaren barruan sortu dute Gaztedi Durangaldea.

Aldundiak urtean 137.000 bat euro ipiniko ditu. Udalek bakoitzaren aurrekontu osoaren araberrako ekarpen ekonomikoa egingo dute: Iurretak 6.000 euro. Aldundiak %70ari egingo dio aurre, eta beste %30ari udalak.

Gaztedi Durangaldea garatzeko ardura hartuko du Amankomunazgoak

> MAÑARIA**Neguko auzolanetarako apuntatzeko deia**

Udazkenean jausitako orbela bideetatik kenduko dute; urtarrilaren 4ra arte eman ahal da izena

> MARKEL ONAINDIA

Mañariko Udalak auzolana proposatu du aurtengo neguan zenbait bide garbitzeko. Udazkenean jausitako orbela bideetatik kenduko dute, hori izango da zeregina. Izan ere, orbelak ubideak oztopatzen ditu, eta hori sailhestea izango da auzolanaren helburua. Parte hartzeko deia egin du udalak, eta urtarrilaren 4ra arte eman ahal da izena, liburutegian edota udaletxean bertan.

Endika Jaio alkateak adierazi du urtarrilaren 18an eta 25ean egingo direla auzolanak. Partaide kopurua eta bakoitza nondik datorren, eremu bat edo beste

bat garbitzeko erabakigarri izango ei dira. Hau da, auzo bakoitzetik doan jendearen arabera zehaztuko dute non lan egin.

Udaberrian ere egin zuten bideak garbitzeko auzolana.

Kantuan

Gabon bueltarako hainbat ekintza daude iragarrita. Horien artean, gaur iluntzean egingo den kantu-poteoa. Klean eta tabernetan abesteko ohitura gal-tzen dabilela-eta, jarduera hori berreskuratu gura dute Mañariko Udaleko Kultura Sailetik, “kanta zahar eta berriak ikasita eta kantatuta”. 19:30ean hasiko da kantu-poteoa, plazatik.

> GARAI**Etxe guztietatik pasako dira Olentzerogaz kantuan****> M.O.**

Herriko etxe guztietatik pasatuko da datorren abenduaren 24an Olentzero, eta beragaz batera abesten joango dira hainbat herritar. Udalak eta Trumoitte kultur elkarteak antolatu dute irteera, urtero lez. Goizeko 10:00etan irtengo dute, antolatzailak azaldu dutenez.

Goizean auzoetatik ibiliko dira, herriko trikitilari eta panderojole bikote batez. Gainera, etxe bakoitzean turroi tableta bana utziko dute. Eta goizeko ostertaxoa amaitu ondoren, eguerdian elkartean bazkalduko dute. Bazkaldu eta gero, arratsaldean, plaza inguruan jarraituko dute kantuan.

Komentukale 23 behe, 5. esk.
48.200 Durango - Bizkaia
688 864 975

ZURE txokoa

DURANGON TXOKO ALOKAIRUA

enpresa-bilera bataio
urtebetetze ospakizunak
jaunartze

info@zuretxokoa.com
www.zuretxokoa.com

(Des)amodio

Abenduak 26, eguena, 19:00-etan Durangoko Hitz liburutegian.

Gotzon Barandiaran eta Jon Benito

Poesia Musika

Sarrera doan **hitz**

► Berbaz

Justo Azagirre eta Pello Mugertza | Mallabitarrak | Mallabiko toponimia mapa osatu dute

“Laguntza handia izan dugu; batzuek 150 izenetik gora eman dizkigute”

Mallabiko leku izenak batzen ibili dira azken urte bietan Mugartza eta Azagirre. Denetara 108 herritarrekin batu dira izenen berri jasotzeko, eta 3.000 toponimo batzea lortu dute. Gabonetan etxez etxe banatuko dute mapa toponimikoa.



“Akatsak egongo dira, baina egindakoa hor geldituko da. Atzetik datorrenak oinarri bat edukiko du”

bonetan, etxez etxe banatuko da mapa toponimikoa, eta orduantxe ikusiko dute gure lana. Herritarrek ikusita, akats batzuk daudela esango digute, agian. Akatsak egongo dira, baina egindakoa hor geldituko da. Atzetik datorrenak oinarri bat edukiko du, behintzat. Gauzak txarto badaude, aldatuko ditu.

Azkenean horrelako lanekin balioa ematen zaie herriko berba eta izenei.

P.M.: Bai, eta uste dut jendeak estimatzen duela beregana joatea eta esatea: “Zeuk badakizu, eta esplikatu”. Askok pentsatzen dute: “Nik zer jakingo dut, bada!”. Pentsamendu hori badago. Batzuek 150 izenetik gora esan dizkigute. Hori berrogei urtetik beherako batek ez daki. Hamar izen inguru jakingo ditu baserrian bizi denak.

Materialagaz libururen bat ateratzeko asmoa-edo badaukazue?

P.M.: Momentuz ez. Gure artean komentatu izan dugu, komeniko litzatekeela Berrizen baserriekin egin duten antzeko liburu bat egitea, baina oraingoz ez. Orain antzinako tresnen kontuarekin gabilta.

Zertan zabilatzate, bada?

P.M.: Oraingoz hasi baino ez gara egin. Hor Trabakua behekoan, Enrike Mugarzak antzinako tresnen bilduma bat dauka, eta han hasi dugu lana. Orain ehun urteko fonografoak eta lehengo erremintak dauzka berak. Han argazkiak ateratzen hasi gara eta Mallabiko baserrietatik ibili gura dugu, argazkiak ateratzen eta tresnen izenak batzen.

> AMAIA UGALDE

Trabakua lehenago Arrangiz-gaina zen, baina atera kontuak, handik beheratxoago, Eltzubin, taberna zegoela Arrangiz-gainan baino lehenago. Bertan taberna zabaldu zutenean heldu zen konpetentzia, Eltzubikoentzat traban zegoen hura. Hortik ei dator Trabakua leku izena. Pello Mugartzak eta Justo Azagirrek Trabakuan bertan kontatu dituzte Mallabiko leku izenen nondik norakoak. Ia urte biko lanaren ostean, herriko mapa toponimikoa osatu dute.

Gustora zaudete egindako lanarekin?

Pello Mugartza: Bai, eta batez ere jendearen erantzuna oso ona izan delako. Hasieran batzuek zera pentsatzen zuten: “Hauek zer gura ote dute? Zertara ote datoz?”. Baina zer gura genuen jakin eta gero, laguntzeko prest agertu dira.

Justo Azagirre: Batzuek, gainera, euren gaitasuna ez zergatik ez garen joan galdetu digute. Bada, euren etxez eta inguruko izenak beste batek eman dizkigulako. Baserritarrek ez dakite bakarrik bere baserriaren izena; inguruko eta auzoko izen asko dakizkitez. Azkenean 108 herrita-

rrekin egon gara, eta 3.000 izen lortu ditugu, eta horrek esan gura du bakoitzak asko eman dituela. Batek berrehun izen inguru ere eman dizkigu.

Elkarriketa txikiak egin dituzue, edo zelan izan da datu bilketa?

J.A.: Bakarka baino, normalean hiru-lau pertsonako taldeekin batu gara, eta kolaborazio oso ona egon da euren artean.

P.M.: Mapagaz joaten ginen, eta han agertzen ziren partzela bakoitzaren izena, eta norena zen komentatzen ziguten.

J.A.: Euren artean eztabaidatxoak ere sortu dira. Norbaitek “hori ez dok holan” esanez gero, orduantxe hasten zen eztabaida. Baina ona, e? Oso aberatsa izan da lana.

Artxibo eta dokumentu zaharretara ere jo duzue?

J.A.: Guk izenak batzen genituen, eta Pellok etxera eroan, ordenatu, ordenagailuan sartu eta zuzendu egiten zituen.

P.M.: Baten batzuek eskriturak ekarri dizkigute, baina izenik gehienak entzundakoak dira, memorian gorde diren izenak.

J.A.: Euskaltzaindiko Mikel Gorritxategik egin du euskara

“Kontatzen dute Urrearria izeneko lursailean urrea gorde zutela behin, eta bila ere jardun zutela”

batura pasatzeko lana. Artxi-boetan ikusi du guk batutako izenak zelan dauden, eta batuko formak zehaztu ditu. Horiek dira mapan agertzen direnak.

Izenen atzean herriko historiaren zati batzuk ere jasoko zenituzten...

P.M.: Izen berezi batzuk badaude. Zengotitan, adibidez, ermita ondoan, lursail bat dago, Urrearria deitzen dena. Kontatzen dute han, behin, urrea gorde zutela, piratek, edo ez dakit zeinek, eta bila ere ibili zirela batzuk. Itxuraz ez zen inoiz agertu. Beste izen kurioso bat Demandabaso da.

J.A.: Hor borroka batzuk egongo ziren, lursailen mugengatik edo...

P.M.: Beharra egiteko leku gaitzek ere badaukate izen berezia. Idekatx, aldapa handiko lekua da eta idiekin ibiltzea gaitza izango zen. Edo Izerdi... Han ere ez zen erraza izango lan egitea.

J.A.: Eguzki-begi bat da gainera.

P.M.: Edo Litrobaso. Itxuraz basoa erretzeko beharretan litro bat ardoren truke ibili zen kua-drilla bat. Bestetik, Gerean, Justoren familiakoa den baso batek Paris du izena.

J.A.: Bai, eta ez dakigu zergatik. Paris da, eta Gerean denek horrela esaten diote. Zelan zen bestea, Txizontzia? Erreka txiki bat dago bertan, jaioberria.

P.M.: Euren esaten zuten, behar-bada, ganadua egongo zela, eta bertan ere egiten zutela txiza.

Kultur etxean egin zenuten aurkezpena. Jende asko gerturatu zen?

J.A.: Sekula baino gehiago. Ia hirurogei bat egon ginen.

P.M.: Eskerrak ez zela jende gehiago etorri, ez zen sartuko eta! Lekua txikia da, eta justu-justu sartu ginen.

Jendea irarri arraro egingo zaio, agian, izenak euskara batuan irakurtzea.

J.A.: Ikusiko dugu. Orain, Ga-



Harrison

HOTEL RESTAURANTE

1. menua

Ezkur-urdaiazpikoa, baserriko tomatea daukan ogiak lagunduta
Entsalada epela, oliba beltzez egindako ozpin-olioa daukan bakailoarekin
Txipiroiz egindako kroketa, ali-oliarekin

Txangurruz betetako piperrak

Su txikian egindako masaila, sagar-purearekin

Gabonetako torrada, intxaur-saltsarekin

Kafea eta Gabonetako gozokiak

Edariak

Ardo beltza Errioxako ardo ondua

Ardo gorria Nafarroakoa

Bizkaiko txakolina

Prezioa:
30€ + %10 BEZa

2. menua

Foie terrina bere jaleekin
Bieira tipulin kremari, lunpo gorri arrabak eta jabugo urdaiazpiko xerrak
Txangurru krepa, zigala saltsarekin

Zapotxo plantxan, basoko perretxikoein egindako ohearekin

Su txikian egindako masaila, sagar-purearekin

Gabonetako torrada, intxaur-saltsarekin

Kafea eta Gabonetako gozokiak

Edariak

Ardo beltza Errioxako ardo ondua

Ardo gorria Nafarroakoa

Bizkaiko txakolina

Prezioa:
40€ + %10 BEZa

3. menua

Txangurru koroa gazpatxo eginiko mahonesarekin eta otarrainxka purea
Muxila fina, boletus edulisekin tipulin kremari
Arkume-hazikontxoak parmesano erako saldan txigortuak

Meroa parrilan tomate txapel eta albaka olioarekin

Boche azpizuna txingarretan egindako foiearekin, eta tartufo krema eta patata bioleta kristala

Masusta gorri eginiko gratena

Kafea eta Gabonetako gozokiak

Edariak

Ardo beltza Errioxako ardo ondua

Ardo gorria Nafarroakoa

Bizkaiko txakolina

Prezioa:
50€ + %10 BEZa

Gabon zahar gaueko kotilioia

Ostatu hartzea logela bikoitzean
Buffeteko gosaria
Gabon zahar gaueko afari berezia
Kotilioi poltsa + cava
Kotilioia doako edanarekin
Prezioa: 150€

Doako edana goizaldeko 4:00etara arte izango da

Ostatu hartu gabe: 125€
Haurrentzako menua: 35€
Ohe gehigarria: 20€
Haurrentzako gosaria: 3€
Urteberri eguna: Ostatu hartuta daudenentzako BRUNCHa 35€ edo menua 50€ (erreserba aurretiaz egin behar da)

%10eko BEZa ez dago prezioen barruan



**Jaia pergolan
Musika
Kotilioi poltsa**

Informazioa eta erreserbak:
hotelharrison@hotelharrison.com
946 300 530

Gabon zahar gaueko menua

- Gazpatxo txupittoa, lurrinetan egindako otarrainekin
- Abakando entsalada barazki mixarekin, mostaza zahararekin gatzozpinduta
- Ezkur-urdaiazpikoa, baserriko ogiarekin eta baserriko tomatearekin
- Potxa krema bieirekin eta bruniuse trufa

- Muxila fina, boletus edulisekin tipulin kremari

- Zigala plantxa triple 0 estra

- Broche azpizuna txingarretan egindako foiearekin, eta tartufo krema eta patata bioleta kristala

- Gabonetako torrada, intxaur-saltsarekin

- Kafea eta Gabonetako gozokiak

- Xanpain kopa

- Edariak

- Ardo beltza Errioxako ardo ondua

- Ardo gorria Nafarroakoa

- Bizkaiko txakolina

Prezioa:
95€ + %10 BEZa



Iritzia

> GUTUNAK



gutunak@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GAZTAÑAZATORRE

pp



Guztion euskara

Iragan abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Alderdi Popularrak udalak ateratako manifestua izenpetu zuen. PPko zinegotziok argi daukagu euskara dela gure bi hizkuntzetako bat; kultur ondare bat da, eta erakundeok bere zabaltze eta defentsan jardun behar dugu.

Euskarak sekula ez du izan behar zatiketa eragingo duen arma politiko bat, ezta proiektu politiko bat edo beste sustatzeko aitzakia ere. Euskaldunok hizkuntza ofizial bi edukitzea aberastasun linguistikoa eta kulturala da.

Euskara gure euskal izaeraren elementu ukaezina da. Eta den bezala tratatu behar da, inposaketarik gabe, garrantzitsuena euskara zabaltzea delako. Eta horrek ez du eraginik izan behar euskara menperatzen edo ezagutzen ez duenaren askatasunean; eta gaur egun horiek osatzen dute euskal jendartearen gehiengo, Eusko Jaurlaritzaren datu ofizialen arabera.

Horregatik zaindu eta sustatu behar da euskara, baina sekula inposatu gabe. Beraz, administrazioa sartzeko oposizio publikoetan euskarak ez du baldintza nahitaezko bat izan behar; ez eta esleipen bidezko lehiaketa publikoetan ere. Bizitzako edozein alor dela ere, euskara ezin da inposatu.

Hizkuntzak komunikazio tresnak dira, eta batzeko balio behar dute, ez zatitzeko. Inportanteena zubiak eraikitzea da, eta ez desadostasunak sortzea. Izan ere, askatasuna da garrantzitsuena, gure lurraldean azken hamarkadetan hain erasotua izan den askatasuna.

**Erredakzioan itzulia*

Durangaldea ere frackingaren mehatxupean

Durango ere hasi gara Fracking EZ! izkribua duten banderolak, kamisetak eta pankartak ikusten. Berez, kalean gero eta jende gehiago harriduraz entzun diogu: "Banekien Araba frackingaren mehatxupean zegoela; baina, Durangaldean ere egiteko asmoa dute ala?".

Badirudi hasi dela, nolabait, haustura hidraulikoaren inguruko kezka eta gogoeta Durangoko kaleetan ere zabaltzen. Pertsona gehienek goiko galdera horren erantzuna jakin gura dute, batez ere. Izan ere, beldurra diogu energia iturri fosila den gasa ustiatzeko teknika agresibo hori etxe alboan izateari. Logikoa, haustura hidraulikoak badituelako elementu arriskutsu asko, larregi, egia esan: lur azpira sartzen dira hodi sendoak, 5.000 metro baino gehiagora; ur kantitate handia presioz sartzen da, elementu kimiko pozoitsuekin nahastuta; eta lurrikara txikiak eragiten dira, hai-tzetan dagoen gasa askatzeko. Horiek dira arriskueta batzuk, baina beste asko ere egon badaude.

Horren haritik, lehenengo paragrafoan aipatzen den galderak badu erantzunik. Bai, horrela da, Durangaldea ere frackingaren mehatxupean dago. Durangaldeko lurzoru guztia Lore eta Saia deritzen eremuetan dago. Saia eremuaren barnean, Bernagoitian, lur azpia aztertzeke ikerketa sismikoak egin dira; eta Lore lur eremua ustiatzeko baimenak eskatuak ditu Sociedad de Hidro-

carburos de Euskadi S.A (SHESA) izena duen enpresa publikoak. Jaurlaritzak edozein momentutan eman dezake Lore eremua ustiatzen hasteko baimena. Eta jakin badakigu Jaurlaritzak ez duela frackinga baztertzeko asmorik: 2014ko aurrekontuetan SHESAk diru partida zehatza jasoko du bere jarduerekin jarraitzeko; 14,4 milioi euro, zehazki.

Durangaldea badago, beraz, frackingaren mehatxupean. Aitzitik, uste dugu honako hau ez dela tokian tokiko ikuspuntu batetik bakarrik jorratu beharreko mehatxua. Gaur egungo gizakiak badu, oro har, uste okerra: ingurumena eta natura nahierara eta nahi beste ustiatu omen ditzake, bere ekonomia jarduera mugagabeak aurrera ateratzeko. Konbentzimendu oker hori daukate pertsona askok, bai Durango, bai Gasteizen, bai beste leku askotan. Eta horietan guztietan bizi izango ditugu garaian garaiko mehatxuak, izan zentral nuklearrak edo izan haustura hidraulikoa garatzeko putzuak. Bada garaia, beraz, gose mugagabe eta kaltegarri horri mugak jartzeko, bai Durango, bai gure etxeko leihetatik ikusten ez diren toki guztietan.

Galdera horiei eta beste askori erantzuten saiatzeko elkartzen gara astero, Durangoko Pinondo Etxean, ostegunetan, 19:00etan. Gonbidatuta zaudete bertaratzeraz, kezkak, ekarpenak eta hausnarketak gurekin partekatuz.

Fracking Ez Durango



ONGI ETORRI, ZO(R)4!

Zoaz, 2013! (kolkua hutsik diru...)
Zatoz, 2014! (zorua beteko al dau!)
Riau, riau, riau... Olentzero hemen dau!!!

Erdi-heroi, erdi-ero, Olentzero!!!
Aurten argal zatoz, gero!
Aspaldion ardoa... 0,0?
Krisiak jota zaude zeharo?
Tripazorra badu, gerria estu...
Ezlarrian haize-lrena dena, hesteetan eztena...
Euskararik txarra, egiten ez dena!!!

Ondasunak ondasun...
Ekarguzu, ekarguzu...
Bihotz bete maitasun,
Gorputz bete osasun...
eta plaza bete hitzun!

Izan gorri, izan hori, izan betun...
Hau eta hori oraingoz ezezagun...
Pentsa daigun badirela euskaldun...
Bestela, nola ikasiko euskaraz,
ez badute inoiz entzun!?

Hara, hara, haraaa!!!
... eta gu zer gara? Euskaraaaa!!!
... eta zer da euskara? Euskara geu gara...
Ez da entzuten..... Zer da euskara???
EUSKARA... GEU GARAAAA!!!

Manu Arrasate
(Barbaroko bazkidea)

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko abenduaren 20a
11. urtea - 527. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Arrate Mardaras | Abadiño, 1960 | Idazlea

“Dokumentatu behar izan dudanez, asko ikasi dut liburua idazterakoan”

‘Pendrive’ narrazio bilduma kaleratu berri du Arrate Mardaras abadiñarrak Susa argitaletxeagaz

> ITSASO ESTEBAN

Durangoko Azokan, Ahotsean, aurkeztu zenuen liburua. Zelako esperientzia izan zen?
Jende asko bertaratu zen, eta oso laburra egin zitzaigun, egia esan. Miren Agur Meabek galderak egin, eta nik ipuinez ipuin eman nituen argibideak. Pena izan zen jendeak galderak egiteko astirik eduki ez izana.

Zer argibide eman zenuen?

Zenbaitzuek esana zidaten uleratzeko zaila zela liburua, eta egia da, laburra izan arren, apur bat trinkoa badela: arretaz irakurri beharrekoa da. Gako batzuk eman nizkien, horregatik. Alde batetik, bost ipuin daude, kronologikoki emandakoak; kobazuloetan kokatutakoa lehenengoa, eta 36ko gerran azkena. Tartean, beste istorio bat dago, Sindarena, eta independenteak diren beste hainbat ipuin ere badaude.

Ipuina garatzen den sasoia edozein dela ere, ipuin guztietan agertzen da maitasunaren gaia. Bai, denetan ageri da maitasun istorioren bat. Maitasunaz gainera, beste bi arlo lantzen ditu liburua: Euskal Herriko historiari dagokiona, batetik, eta literaturagaz loturikoa, bestetik.

Ipuin bereizi horiei, pendrive-ak ematen die batasuna.
Bai, kontua da editore baten

mahai gainean pendrive bat agertu dela, eta norena den jakin ez arren, argitaratzea erabakitzen duela. Editorearen azalpenetan kontatzen da hori.

Ipuinak amaituta zenituela sortu zaizu USB memoriaren ideia, edo hasieratik eduki duzu?

Hasierako ideia da. Ez nuen ipuin independenteen segida bat egin nahi, lotura bat eman gura nien. Horrela bururatu zitzaidan pendrivearen ideia.

Zer dakar pendriveak barruan?

Liburuko ipuinok dakartza barruan, testuak. Sindaren kasuan, irudiak ere agertzen dira.

Idazlearen literaturari eta jardunari buruzko oharra ere irakurgai daude zure liburuan.

Bai, tonu serioa kentzeko helburuz egin dut: lehenengo bi ipuinen amaieran ematen ditut azalpen horiek. 36ko gerran kokaturiko istorioaren aurretik, idazlearen zirriborro bat ere agertzen da, eta literaturaren balioaz ere badihardut.

Zelako komentarioak jaso dituzu liburua inguruan?

Oraindik oso denbora gutxi igaro da kaleratu nuenetik (azaroren 27an argitaratu nuen), eta, momentuz, iruzkinak oso gertuko jendeak egin dizkit. Gustatu zaiela esan didate.

Durangaldea ere agertzen da liburuko beste ipuin batean?

Bai, *Ginebra erreginare* itzule-ra ipunean. Joseba Sarrionandiak duela 30 urte egin zuen *Ginebra erregina erbestean* ipuina dago narrazio horren oinarrian. Izurtzako Etxaburuko dorretxean kokatu dut Arturo erregearen mitoa. 30 urtean Euskal

“

Daukadan denbora idaztera bideratzen dut: zentratzeko momentua dela sentitzen dut”

“Gertatzen dena da ipuinak ez direla nobelak bezainbeste baloratzen”

Emakumeek idatziriko literaturaren historiaren azterketek ipuinen generoa eta emakumezko idazleak lotzen dituzte, askotan. Mendetan emakume idazleek bizimodua literaturatik egiteko izan dituzten zailtasunak eta beste hainbat desabantaila aipatzen dituzte joera horren azalpen bezala: betebeharrak denbora gutxi utzi izan dietela, esaterako, epe luzeagoko proiektuei ekiteko.

Bere sorkuntzagaz lotura egin, eta elkarriketako une batean ideia hori mahaigaineratuta, “ez nago batere ados”, erantzun du Arrate Mardarasek: “Ez dut uste ipuinetan ibili denik emakumea. Gertatzen dena da, ipuinak ez direla no-

belak bezainbeste baloratzen, eta emakume idazle ezagun askoz gutxiago dagoela. Denetik idatzi dute emakume zein gizonak, baina beste arlo batzuetan bezala, gutxiago ezagutzen da emakumeen lana. Izengoitiak idatzi izan dute emakume askok: gizon izenez argitaratutako literatura famatu asko, benetan emakumezkoena izatea oso posible da”.

Hain zuzen, inork nor den jakin barik zer edo zer oso ona argitaratzea gustatuko litzaiokeela aitortu du Mardarasek. Baina ia ezinezkoa da hori, gaur egun. *Pendrive* bere liburuko fikzioan, bai, sinatu bako idatziak bere izenean erregistratzen ditu editoreak.

Herrian gertatu dena gehitu dut, eta bigarren bertsio bat eskaini dut. Durangaldea Gaztela bihurtu zen sasoiak kokatu dut nire narrazioa, baina aurrera eta atzera egiten dut denboran. Eta esperantzarako aukera zabalik uzten dut amaieran.

Noiz hasi zinen liburu honetarako ideiak lantzen?

Ez dut oso zehatz gogoratzen, baina uste dut Ginebraren ipuina izan zela lehenengoa: joan zen urtean idatzi nuen.

Argitara eman duzun lehenengo liburua hau izan arren, lehenago ere idazten aritakoa zara, ezta?

Badauzkat testu eta poema batzuk aspaldi idatzitakoak, baina jarraipenagaz, eta serio, sekula ez dut idatzi. Zerbait hasi, ideia bat abiatu, eta bertan behera utzi izan dut orain arte.

Zergatik erabaki duzu liburu hau argitaratzea?

Honek gauza serio bat egiteko eta ondo pasatzeko aukera ematen zuela pentsatu nuen. Zentratzeko momentua zela. Daukadan denbora idaztera bideratzen dut azkenaldian.

Zelakoa izan da liburua idazkuntza prozesua?

Guztiz gozagarria izan da sorkuntza prozesua, asko disfrutatu dut. Hainbat konturi buruz dokumentatu behar izan dudanez, asko ikasi dut. Hizkuntza-ekin ere jolasteko aukera izan dut: latinismoak erabili ditut, esate baterako.



> MUSIKA

Gau elektronikoa despeditzeko hitzordua, Plateruenean, gaur

Lau urte baino gehiagoren ondoren, azken Gau Elektronikoa ospatuko dute



Iker Undersound eta Ruben Costas dira Gau Elektronikoaren arduradunak.

> ITSASO ESTEBAN

Azken lau urteetan Gau Elektronikoaren arduradunak izan diren Iker Undersound eta Ruben Costas DJak jardungo dira gaurko Durangoko Platerueneko Gau Elektronikoaren azken emanaldian. Plateruenean euren aritzera gonbidatu dituzte, bestalde, Laudioko DJ Summit,

Durangoko Unai Zenn eta Abadiñoiko Plastic Duo lagunak.

Azken Gau Eletronikorako, aurrealmentan ohikoa baino sarrera gehiago saldu dituztela azaldu dute, pozik, Ruben Costasek eta Iker Undersoundek: “Ez da ohikoa horrelako arrerapenagaz sarrerak saltzea, badirudi jendeak sarrera barik

geratzeko beldurra duela: berobero dago giroa”. Gau Elektornikoetako batez bestekoa 700 bat ikuslekoa izan bada, are jende gehiago espero dute Platerueneko gaur gaueko hitzordurako.

Datorren otsailean lau urte beteko lituzke Gau Elektronikoak Durangoko Plateruenean, baina gaurkoa dute azken ema-

naldia. Jaien promozioan jarduten azken aldia izango dute gaurkoa, beraz, Iker Undersoundek eta Ruben Costasek. “Musika sormenera dedikatu gura dugu indar guztia”, azpimarratu dute, “eta gaurko emanaldia amaitzen dugunean, buru-belarri ekingo diegu abiatu ditugun sorkuntza proiektu berri horiei: hau itxi egingo dugu, zerbait are hobea egin gura dugulako”.

Undersoundegaz eta Costasegaz, Dj Summit, Unai Zenn eta Plastic Duo ariko dira emanaldian

“Gaurko emanaldiaren ostean ekingo diegu abiatu ditugun sorkuntza proiektu berriei”

Iker Undersound eta Ruben Costasek eskerrak eman gura izan dizkie urte guztiotan aldamenean zein Durangoko Platerueneko oholtzaren bestaldean izan dituzten lagun guztiei. Euren ospatu gura dute agurra.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA

Kazetaria



Irudiak

Besteei begira ohartu naiz, aspaldion, niri ere denborak ihes egin didala: urteak, banaka, binaka zein launaka. Eta hainbat irudi geratu dira urte horietako argazkietan: *Egunkariaren* itxiera, Laboaren heriotza, irailaren 11... Eta hainbat dira hitzak, doinuak, emozioak.

Gogoratzen dut bata. Oker ez banago Lekeitio zen. Taberna irlandar batean, gitarra bat tarteko, garagardo beltza upel gainean eta kea. Esaten ari zirena ulertzeko ere gazteegi, agian.

Askotan kasualitateak eramaten zaitu liburu bat edo abeslari bat ezagutzera; eta ziur nago ordura arte Manu Chao nor zen ere ez nekiela; besteak utzitako altxorarekin ezagutuko nuen abeslaria. Baina beldurra eta gorrotoa ere eramango al zituen denborak!

Bataren gordintasunak liluratzan nau; gupidarik gabeko ironia zorrotzak. Esaten dituenak hain nire zergatik sentitzen ditudan jakiteko gehiegi pentsatu beharrik gabe. Eta bai, nik ere izaten ditut horrelako egunak: doazela pikutara lagunak eta Ama Birjina! Eurentzat beti edukiko dut-eta gaur arte neukan adina!

Eta bestearen fintasuna, dotorezia, teknika. Orain sakon, orain umorez. Eta ez dakit modu egoki edo desegokian, baina ni ere harriak bota eta bota nabil, eta nahiz eta nire hitzak ahaleginean lehertu, berak ezin du ulertu.

Terminologia aldetik ez dakit posible den, eta Euskaltzaindikoek daukaten *kristoarekin*, ez naiz orain galdezka hasiko. Baina txapeldun izateak txapel bakararra eskatu arren, eta txapelik ez duena txapeldun izan daitekeen zalantzan jarrita ere, nik neuk badauzkat txapeldun bi.

> IKUSKIZUNA

‘Kapsulak’ ikuskizun berria eskainiko du Markeliñek Durangon

San Agustin kulturunean eskainiko dute lana



Ahotsa, baxua, bateria eta gitarra izango dira entzungai.

Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak sortu duen azken lana, *Kapsulak* izeneko ikuskizuna, eskainiko dute abenduaren 22an, Durangoko San Agustin kulturunean. Kataluniako Samfaina de Colors taldearekin elkarlanean sortu dute obra.

Ikuskizun familiarra da *Kapsulak*: sei eta hamabi urte arteko haurrei dago zuzenduta. Oinarrian, folk-rock kontzertua da, domekan, 18:00etan, eskainiko dutena. Izan ere, ahotsa, baxua, bateria eta gitarra izango dira entzungai. Zuzeneko musikaz gainera, ikus-entzunezko proiektzioak eta antzerkia ere badarabiltzate.

Markeliñe antzerki taldearen arduradunek aurreratu dutenez, “erlojuari iruzur egiten dion protagonista” dauka *Kapsulak* lanak, “gogoratu nahi dituen uneak kapsulatxotan gordetzen dituen”.

> MUSIKA

Santanen ariko dira Jaizaleko txistulariak

Gabonetako kontzertua eskainiko du Jaizale Durangaldeko txistularien elkarteak, abenduaren 22an, 13:30ean. Durangoko Santana elizan izango da emanaldia, eta beste hainbat musikarik lagunduta jardungo dute txistulariek. Guztira 40 lagun ariko dira emanaldian, eta tartean izango dira metal hirukotea, biolin laukotea, pianista eta soinu-jolea. Gainera, Abadiñoiko Done Zezili abesbatzak ere parte hartuko du kontzertuan. Jaizale taldeko Eleder Iturrieta txistularia ariko da kontzertua zuzentzen, eta zortzi gabon-kantako errepertorioa eskainiko dute. Fernando Aurrekoetxea musikari barakaldarrak moldatu du kanta sorta.

25. URTEURRENEKO KONZERTUA
Durangoko Herri Maite
akordeoi taldea
Abenduak 21 · 20:00

KAPSULAK
Markeliñe antzerki taldea,
Samfaina de Colors
Abenduak 22 · 18:00

San Agustin
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA

Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

ABENDUAK 21 - 22:30ean 8/10 euro
GOVERNORS
MUSIKA KONZERTUAK

ABENDUAK 22 - 18:00etan 5 euro
EL FAKIR AND THE CHE CHE BAND
HAUR ETA HELDUENTZAKO IKUSKIZUNA

ABENDUAK 30 - 22:00etan 8 euro
ANDONI EGAÑA, MAIALEN LUJANBIO, AMETS ARZALLUS, UNAI ITURRIAGA
URTEKO AZKEN SAIOA (Gai-jartzailea: Igor Elortza)

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu
gura badozu
deitu!

946 217 902

> MUSIKA

Urteurrena ospatuko du bihar Herri Maite akordeoi taldeak

Akordeoi taldearen 25 urteko historian parte hartu duten musikariak arituko dira kontzertuan

> ITSASO ESTEBAN

Durangoko San Agustin kultur-gunean eskainiko du 25. urteurrenko kontzertua Herri Maite akordeoi taldeak. Alde batetik, gaur egun taldea osatzen duten Elena Txurruka, Idoia Garai, Nerea Zarandona, Nuria Bilbao, Nerea Narbaiza eta Joxan Luis soinu-jotzaileek, Mikel Nuñez pianistak eta Antonio Nuñez zuzendariak parte hartuko dute kontzertu horretan.

Bestetik, mende laurden honetan taldeko kide izan diren beste 15 akordeonistek joko dute, kontzertuko beste kanta biren interpretazioan. Antonio Nuñez zuzendariak kontzertuaren aurkezpenean esan duenez, 25 urtean 50 kidek osatu dute Herri Maite taldea. Gainera, Musikari horiez gain, Bogoroditsie abesbatza, Amaia Uzainki

eta Minerva Olmedo sopranoak eta Irati Bilbao abeslaria ere gonbidatu dituzte biharko emaldian parte hartzera.

Hainbat kantaren akordeoi-rako moldaketak, klasikoak eta bertako doinuak, eskainiko dituzte emanaldi berezi horretan: *Agurra*, *En un mercado persa*, *El barbero de Sevilla*, *La conquista del paraíso*, *Moon river* eta Strauss-en hainbat bals, kasurako. Hamaika kanta, guztira.

1988an taldea sortu zutenean, izena Eusebio Bilbao Durangoko akordeonistaren *Herri maite* kantatik hartu zutela gogoratu dute kontzertuaren aurkezpenean. Hain zuzen, Eusebio Bilbaoren bilobak ere joko du biharko kontzertuan: emanaldiaren aurkezpenean egon da Nuria Bilbao, eta berak azpimarratu du, “talde osoarentzat kon-



Idoia Garai, Antonio Nuñez eta Nuria Bilbao Herri Maiteko musikariak.

zertu oso berezia” izango dela. Antonio Nuñez taldekideak arreratu du, aittaren akordeoia joko duela Nuria bilobak.

Mende laurden taldean daraman Idoia Garaik ere parte hartu du kontzertuaren aurkezpenean, eta gogoratu du Durangoko Andra Mariko sakristian egiten zituztela entseguak, gaztetan. Asteon, azken urteetan entseatzeko leku izan duten Lan-

dako kiroldegipeko lokaletik luzatu die Garaik herritar guztiei biharko kontzerturako gonbita.

Etorkizunari ere begiratu diote abenduaren 21eko kontzertuaren aurkezpenean. “25 urteotako lanak jarraipena izatea da nahi genukeena”, esan du Antonio Nuñezek. Taldera batu gura duten musikariek Herri Maiteko ateak zabalik dauzkate-lan azpimarratu dute.

> LITERATURA

Hilabeteko epea Iurretako literatur lehiaketara lanak aurkezteko

> I.E.

Urtarrilaren 24ra arteko epea zabaldu dute, Iurretako XI. literatur lehiaketara lanak aurkezteko. Bidebarrieta kaleko Herri Bibliotekan, edo *biblioteka@iurreta.net* helbidean aurkeztu ditzakete parte hartzaileek euren idatziak.

Azken urteetan bezala, haur eta gazteen sailetan aurkeztuko dituzte lehiaketaren parte hartzaileek euren lanak. Zazpi-zortzi urteko umeek zein helduek, eta tarteko adin guztietako literatur, komiki eta bertsozaleek ere parte har dezakete lehiaketan. Izan ere, ohi bezala, ipuinen, bertso paperen eta komikien sailean aurkeztu daitezke lanak.

Datorren urteko maiatzaren 9an, Ibarretxe kultur etxean egingo dute Iurretako literatur sarien banaketa ekitaldia. Azken urteetan bezala, helduek dirutan jasoko dute saria, eta liburu sortak izango dira irabazle gaztetxoentzako sariak.

> KRONIKA BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALA

Pantailaren bestaldean

> MARKEL ONAINDIA

Goizeko 10:55. Telebista isiotu eta aiba! Meza Santua ETB1en. Hori dio behintzat informazio barrak. Baina ez, ez, hor datoz bertsolariak jende artetik, gladiatoreak lez. Bai, ni ere BECe-ko espektakulurako sarrerarik barik geratu den taldekoa naiz. Egon hadi lo, eta jango duk mehe!

Lo ez, baina itzartu berri, makarrak kentzen harrapatu nau hasierak. Ez da erraza kontzentratzea pijama soinean daukazula. Saioak aurrera egin ahala joan naiz ni ere berotan sartzen. Kartzelako gaia etorri da: “Egoerak, beste aldean jarri zaitu”. “Bai, pantailaren beste aldean”, nirekiko.

Ño! Latza! Egoera bat sortu eta horri buelta eman behar. Birsorkuntza? Sarritan gladiatoreei animalia bortitzeak botatzen ez ote zaizkien... Baina euskal gladiatoreak *laletxe* dira, eta ondo eutsi diote atzaparkadari.

Sofak irentsi orduko, arratsaldean elkarte gastronomikora joan naiz, lagunartera. Kafe, kopa... -¿Has dicho uno? -No, no no... He ditxo dos!

Eta gutarrak? Bada, betiko lez. Elortza eleganteki, eta Iturriaga punki. Pena Igor azken batailatik kanpo gutxigatik geratu izana. Unai ere hurrean geratu zen ustea geneukan.

Euren azkeneko txapelketa izan dela? Hala bada, ume-



Argazkilaria: Alberto Elozegi

zurtz geratuko gara hainbat. Politikariaren eta biktimaren paperetik kantatutako bertsoek erakusten dute galduko duguna. Baina, dramak beste baterako. Koliseo handitik kanpo, herriko plazetan jarrai-

tuko dugu gozatzen Durangoko gladiatoreekin.

Pantailaren beste aldetik ez da gauza bera. Baina etxean, lagunartean edo Plateruenean ere, herri bat euskarazko kulturari adi. Berbaren borroka-

lariekin emozionatuta, ileak puntan eta mukizapiak eskutan. Ez dezagun itxaron beste lau urte emozionatzeko.

A! Zorionak Amets! Pikoletok izanda ere emozionatu! Hori bai gladiatorea!

Faustegoienako Kooperatiba-erregimeneko BOE



Eskuragarri daude I. faseko etxebizitzak.
Interesa duten pertsonen izena eman dezakete
2014ko urtarrilaren 17ra arte
Esleipen zuzena egingo da izen-emateko hurrenkeraren arabera

Durango Eraikitzen bulegoan
Lariz Torre kalea, 2, lehen solairua
Tel.: 946 030 019
Ordutegia: 10:00-14:00



OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amézua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta osteko, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, auto istripua,
drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...*

Iturriza, 44 - behe ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

GOIATZ MURUA
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA LETURIAGA
PODOLOGOA

*Kiropodia, Onikopatia, Alterazio
dermatologikoak, Ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 - behe
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behe
48200 DURANGO

Tel.: 946 819 951

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



OPTIKA

ZENTRO OPTIKOA

*Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

Kirola

> **GIMNASIA**

Euskalgym jaialdiak goi mailako nazioarteko gimnastak ekarriko ditu

Iaz, junior mailako zinta proban, Europako txapeldun izan zen Alexandra Soldatova etorriko da



Nazioarteko eta Euskal Herriko taldeetako gimnasten erakustaldiak batzen ditu Euskalgym jaialdiak.

> **JOSEBA DERTEANO**

Durangoko Uztai taldeak Euskalgym jaialdia antolatuko du zapatuan, 12:15etik aurrera, Durangoko Landako kiroldegian. Gimnasia erritmikoa bere askotariko modalitateetan plazaratuko dute nazioarteko gimnastak eta Euskal Herriko hainbat taldeetakoek.

Aurten nazioarteko hiru gimnasta gonbidatu dituzte: Alexan-

dra Soldatova errusiarra, Kseniya Moustafaeva frantziarra eta Anastasiya Kisse bulgariarra. Hirurak dira gazteak, baina dagoeneko erakutsi dute azpiko mailetan noraino heltzeko dohainak dituzten. Soldatovak 15 urte ditu. 2012an urrezko domina irabazi zuen Europako txapelketan, junior mailan, zintagaz egindako lanari esker. Txapelketa hartan taldeka ere

urrezko domina eskuratu zuen. Moustafaevak 18 urte ditu. Aurten brontzezko domina irabazi du Mediterraneoko Jokoetan

Euskal Herriko hainbat talde etorriko dira, Gasteiz, Donostia eta Leioakoak, besteak beste

eta Munduko Txapelketa 12. tokian amaitu du. Kissek ere 18 urte ditu eta, esaterako, aurten Greziako Kalamata Kopa irabazi du bere taldekideekin batera.

Erakustaldi nagusiaren aurretik, 11:00etan, Uztai taldeko aurrebenjaminen saioak ikusi ahalko dira

Erakustaldi horien ostean, Euskal Herriko taldeen txanda izango da. Esaterako, Leioako Sakoneta, Gasteizko Oskitxo eta Bermeoko Xixili taldeak, eta Tolosako eta Donostiako taldeak etorriko dira.

Biharko jaialdia Uztai taldean dabilen gaztetxoaren erakustaldietarako ere erabiliko dute. Horrela, Txikigym izenagaz, Uztai taldeko aurrebenjaminen osatutako gimnasten erakustaldia egongo da 11:00etatik aurrera.

JAED elkarteagaz beharriaz nean dauden familiei laguntzeko egiten duen janari bilketan ere laguntzen dihardu Uztai taldeak. Bihar da janari ez galkorak (esnea, zerealak...) Landako Kiroldegira eramateko azken eguna.

> **JOSEBA DERTEANO**

Astarloa kultur elkarteak martitzenean Jesuitak ikastetxean antolatutako mahai-inguruan, pilotaren iragana, oraina eta etorkizuna izan zituzten berba-gai Roberto Garcia-Ariño eta Iñaki Gorostiza pilotari ohiek, eta Pablo Berasaluze, Ibai Zabala eta Txaber Zabala pilotariek.

Batez ere, gaur eguneko egoeran eta harrobiko lanak dakartzan zailtasunetan zentratu zen mahai-ingurua. Harrobiko pilota sustatzeko neurri berrien beharra azpimarratu zuten, eta egunerokatasunean ikusten diren arazoaren gainean duten ikuspuntua zein den azaldu zuten: pilotaleku gutxi daudela eta eurak sarritan itxita egoten direla; haur kategoriara heltzen direnean uzten dutela pilota gaztetxo askok, pilota bigunetik gogorrera pasatzen direlako; edota gaur egungo gazteek aisialdirako dituzten aukera anitzak aipatu zituzten, besteak beste.

> **PILOTA**

Pilotaren iragana, oraina eta geroa berbegai izan dute pilotariek

Esku pilotaren gainean jardun zuten Pablo Berasaluzek, Ibai Zabalak, Iñaki Gorostizak, Roberto Garcia-Ariñok eta Txaber Zabalak, Jesuitak ikastetxean



Garcia-Ariño, Gallastegi, Zabala, Berasaluze eta Zabala martitzeneko mahai-inguruan.

AGENDA

> **FUTBOLA**

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Galea

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Elorrio - Erandio

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Mungia

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

Zaldia - Larramendi

· Zapatuan, 18:00etan, Solobarrian.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldia B - Arratia B

· Zapatuan, 15:30ean, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Basauritar Emakume

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

> **ARETO FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Goierri

· Zapatuan, 18:15ean, Landakon.

MAILA GORENA

Kurutziaga ikastola - Santutxu

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

Sasikoa B - Gramol

· Zapatuan, 20:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoako Gaztetxe - M.R. Txoko

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

Elorriko Buskantza C - Otxartabe

· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

Dantzari - Iturriondo

· Zapatuan, 16:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

BIGARREN ERREGIONALA

Mallabia - Saltzaileak

· Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian.

Gu Lagunak - Lagun Onak B

· Zapatuan, 15:45ean, Landakon.

Mendibeltz - Biarko Gizonak

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

> **SASKIBALOIA**

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque - Leioa

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Tabirako Baque - Romoko Ezkorak

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

> **ESKUBALOIA**

EMAKUMEEN LIGA

Ibaizabal eskubaloia taldea - Kukullaga

· Domekan, 10:30ean, Landako kiroldegian

> PILOTA

Ofizioak Olazarreko finalera eramán ditu Beitia eta Diez

Asier Beitia eta Aitor Diezek Olazar txapelketako binakako finala jokatu dute abenduaren 31n; lau t'erdian Errandonea eta Bakaikoa neurtuko dira



Asier Beitia pilota jotzeko prest; atzealdean Aitor Diez atzelaria. Kepa Aginako.

> JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko Olazar Pilota Txapelketak abenduaren 31ko finala (16:30etik aurrera) banatuko ditu aurtengo lau t'erdiko eta binakako txapelak. Lau t'erdian nafar bi lehiatuko dira: Ander Errandonea eta Joanes Bakaikoa. Binaka, Asier Beitia eta Aitor Diezek osatzen dute finaleko bikote bietako bat. Bigarrena

atzo gaueko finalerditik irten zen: Urbiet-Tolosa eta Onsal-Gorrotxategi (emaitza www.anboto.org webgunean).

Usansoloko Beitia eta Diez portugaletarak 22-17 irabazi zuten finalerdietan Igor Azpiri elorriarraren eta Kerman Galarza galdakoztarraren aurka. Partidu oso gogor batean Beitia izan zen laukotean onena. Az-

piri, aldiz, bere mailatik behera aritu zen. Egia da arerioek buruz gain pasatu zizkiotela

Finalerdietan kanporatu dituzte Igor Azpiri elorriarra eta Kerman Galarza

pilotarik gehienak, eta jokoan sartzeko zailtasunak izan zituela, baina berak ere ez zion finalerdiari neurririk hartu. Partiduak Azpiri jokoan gehiago sartzeko eskatzen zuen. Izan ere, Galarzari lana pilatu zitzaion. Beitia eta Diezi ofizioak eman zien finalerako txartela; zuzen jokatu eta gutxi galdu zuten.

Bestalde, lau t'erdian Ander Errandonea beratarra eta Joanes Bakaikoa etxarriaranaztarra neurtuko dira. Bakaikoa ez du finalerdiarik jokatu behar izan sailkatzeko. Dario Gome-

Lau t'erdian Bakaikoa da faborito; aurrean abila da eta badaki pilota mugitzen

zek txapelketa utzi du eskuko minagatik, eta nafarra zuzenean sailkatu da finalera. Horrela, apurka gorantz doazen pilotari gazte biren arteko lehia ikusi ahal da finalean. Bakaikoa izango da faborito. Aurrean abila da eta badaki pilota mugitzen. Pilotean agindu egin behar luke. Errandoneak finalerdietan Lopez kanporatzeko erakutsi zuen maila errepikatu beharko du finala irabazteko. Sake-errematean arriskutsua da.

Antolatzaileak gustura dauka txapelketak orain arte emandakoarekin, pilotalekura jende asko batu delako eta partidu asko parekatuak izan direlako.

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

Txirrindulari ohia

Urtebete joan da

Nola joaten den denbora! Dagoeneko urtebete da bai Iñaki, bai Jaime joan zitzazkigula. Zenbat lagun geratu diren bide ertzean. Bai, eramán ohi dugun bizimoduak ez digu uzten ikusten egunak nola joaten eta etortzen diren, eta nola gure pentsamenduak eguneroko eginbeharretan bakarrik zentratzen ditugun.

Baina urtebete joanda, geratu al gara pentsatzen ia zer edo zer aldatu den? Zergatik ditugun oraindik hainbeste lore bide ertzetan? Nik bidean kilometro asko egiten ditut, baina orain autoz. Lehen, bizikleta gainean dena ikusten zen desberdin. Sarritan konturatzen naiz ni neu ere, autoan joan, eta mila gauza ditugula buruan, ez ditugula kontuan izaten bizikletan edo oinez doazenak. Alde guztietara presarekin beti, hainbeste ardurarekin beti... Eta gure helmugara sasoz eta orduan iristea bakarrik ardura zaigu. Errepidean dabilenari kasu gutxi egiten diogu, eta ematen du bidean gu bakarrik gabiltzala. Autoan seguru sentitzen gara, baina jakin ezazue, errepidean doazen horiek, gaur, bihar edo etzi gu geu izan gaitezkeela, edo gure senideak. Ikasi behar dugu errepidean denok elkarrekin ibiltzen, garrantziak diren seinale guztiak errespetatzen. Errepidea denontzako da.

Erakundeetan, ikastetxeetan eta autoeskoletan erakutsi beharko litzateke errespetu hori. Bizikidetzak sustatu behar dugu, egunkarietan beti "txirrindulari bat hil da" edo antzekoak ez irakurtzeko. Beraz, begiak zabaltu, eta bihotzarekin pentsatu. Horrelako gertaerekin jende askok sufritzen du.

> LASTERKETA

Santxibiri proba herrikoia egingo dute Elorrion

Durango Kirol Klubak Santxibiri lasterketa herrikoia antolatuko du aurten ere, hilaren 29an

Iazko harrera ona ikusita, Durango Kirol Klubak aurten ere Santxibiri lasterketa antolatzea erabaki du abenduaren 29ko domekan. Parte hartzaileak hainbat mailatan banatuko dituzte, adina kontuan hartuta. Gazte mailetak lasterketak 12:00etan hasiko dira. Nagusien probari,

berri, 12:30ean ekingo diote, Gernikako Arbola plazatik. Herriaren zehar antolatutako zirkuituari itzuli bi emango dizkiote (5,5 km). Izen-ematea santxibiri2013@gmail.com helbidean egin daiteke, edo abenduaren 28an, 11:00etatik 13:00etara, Elorrioko udaletxe atarian.

> ZIKLO KROSA

Denboraldiko bigarren garaipena Munitxarentzat

Legazpiko proba irabazi ondoren, Jon Munitxa sasoiaren helduko da Euskadiko txapelketara

Abenduaren 29an Lezaman jokatuko den Euskadiko txapelketara sasoi batean helduko da Jon Munitxa (Beste Alde-Orue Eskola). Azaroan Amorebieta-Etxanoko proba irabazi ostean, asteburu honetan Legazpiko Ziklo-kros Saria irabazi du junior mailan: 47.02. Patxi Aldanondo eta Ander

Monterok osatu dute podiuma maila horretan. Emakumeetan Bizkaia-Durango taldeko Lierni Lekuona bigarren tokian sailkatu da, Eider Merinoren (Lointek) atzetik. Eta bigarren tokian amaitu du Gontzal Garcia (Gaur-Sa-Renault) kadeteak ere, Unai Moratoren atzetik.

A. Urreta
podólogo

• Oinetako patologiak
• Neurriaren egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga 19, behea - 946 816 673 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com



CANTÁBRICO
ARRAINDEGIAK


Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu, eta eskerrik asko gudan jarritako konfiantzarengatik.



**Asteartetik ostiralera
8:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
Larunbatetan 8:30etik 14:30era**



Montevideo etorbidea, 9 behea | 946 216 505 | info@pescaderiascantabrico.com



Ekimen berriaren sustatzaileak, eguaztenean, Behargintzaren egoitzan egindako aurkezpenean.

Organikoa batzeko edukiontzia ipiniko dute Iurretan eta Traña-Matienan

Durangaldeko Amankomunazgoaren eskutik, bosgarren kontainerra ipiniko dute urtarriaren hirugarren astean; herri bietako baserri eremuetan konpostajea sustatuko dute, gainera

> MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoak beste pauso bat eman du zabor bilketa sisteman birziklapena handitzeko estrategian. Hondakin organikoari irtenbidea emateko esperientzia pilotuak ezarriko ditu Iurretan eta Abadiñon, urtarriko hirugarren astetik aurrera. Alde batetik, bosgarren edukiontzia –marroia– ipiniko dute Iurretako herrigunean eta Traña-Matienan. Bestetik, autokonpostajea bultzatuko dute herri bietako baserri eremuetan. Aldundiak 60.000 euroko diru-laguntza eskaini du, eta herri bi horietan garatuko da egitasmoa. Harreraren arabera aztertuko dute beste herrietara hedatuko duten datozen urteetan. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek azaldu du euren oinarritzko helburua herritarrak birziklapenagaz inplikatzeko dela, “kultura horretan aurreratzea”.

Hondakin organikoaren birziklapena borondatezkoa izango da, eta interesdunek izena eman beharko dute. Horre-

tarako, informazio batzarrak egingo dituzte lehenik. Edukiontzi marroia erabiliko duen partaide bakoitzari kubo bat emango diote, 10 litroko edukiera daukana, eta poltsa bereziak ere bai. Komerztzioak ere gonbidatu dituzte, eta horiei 80 litroko ontzia emango diete. Gainera, kalean egongo diren kontainer horiek zabaltzeko giltza bat jasoko dute guztiek. Produktu begetalak eta kozinatu bakoak bota ahalko dituzte bakarrik, eta Bilboko konpost-fabrikara eroango dute guztia.

Etxeko konpostajea garatzeko, IK4-Azterlan ikerketa zentroaren laguntza edukiko dute. Auzoetan batzarrak deituko dituzte azalpenak emateko, eta konpost-tailerrak egingo dituzte urtarriaren amaieran. Partaideei konpostera bat eta haizagailua emango diete. Konposteran begetalak ez diren hondakinak ere bota ahalko dira. Azterlaneko Ander Areitourtenak nabarmendu du emaitza ez dela zaborra izango, konposta lurra ontzeko erabili ahal delako.

Informazio guztia www.organikoadurangaldean.com webgunean dago.

Errefusa murriztera

Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak adierazi du pozik daudela ekimenagaz. “Ahaleginduko gara jendea inplikatu dadin”, esan du. Era berean, Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak azaldu du gogotsu hartu dutela ideia. “Zaborra modu koherenteago batean” kudeatu behar dela uste du. Durangaldean %25eko birziklapen tasa dagoela adierazi du Zarrabeitiak, eta errefusa –birziklatu ezin dena– murriztu gura dute.

